

TONBOLA

2025EKO EDIZIOA



BIZITZAK ALDATZEN DITUEN TRADIZIO SOLIDARIOA

2025eko maiatzaren 31tik uztailaren 15era
Iruñeko Sarasate pasealekua

 **Cáritas**
Diocesana de
Pamplona - Tudela

AURKIBIDEA

Zer da Tonbola?	3
Nola funtzionatzen du?	4
Tonbolaren arima: pertsonak	5
Informazio erabilgarria	6
Sariak	7-9
Zozketak	10
Legezko oinarriak	10-19

ZER DA TONBOLA?

Duela **80 urtetik**, Caritasek kolorez eta elkartasunez betetzen du Iruñearen erdigunea, tonbola solidario bat jarrita. Tradizioa baino gehiago, **gizarte-eraldaketarako motorra da**.

Urtero saltzen diren txartelei eta tonbola antolatzean lortutako etekinari **esker**, Nafarroa osoan kalteberatasun-egoeran dauden milaka pertsonari lagundu ahal die Caritasek.

Parte hartzen duen pertsona bakoitzak jasotzen eta laguntzen ditugun pertsonentzako etorkizun hobea ehuntzen du.

10.861 ONURADUN 2024AN

EZAGUT EZAZU HEMEN SAKONAGO
CARITASEN LANA



ZERGATIK DA TONBOLA HAIN BEREZIA ETA MAITEA?

478.746 sari ematen dira, haien artean, autoak, telebistak, bidaiak... eta askoz ere gauza gehiago!

120 boluntario baino gehiago inplikutzen dira.

Poztasuna partekatzeko gune bat da, non txartel bakoitza etorkizun hobe bateranzko pauso bat den.

Zure txartela benetako elkartasun-kate baten zati da. Ez da bakarrik irabazten duguna; ematen duguna da!

¿NOLA FUNZIONATZEN DU?

2025eko Tonbolarako **2.600.000 txartel** inprimatu dira. Txartel horiek hiru motatakoak dira:

**Sari zuzena duten
390.000 txartel:**

unean bertan! Zure txartelak saria badu, une horretan har dezakezu.

**“Bildu” hitza duten
650.000 txartel:**

bil itzazu hitz hori duten txartelak. 5, 10 edo 20 biltzen badituzu, sari bereziak lortuko dituzu.

**Zozketa baterako zenbakia duten
1.560.000 txartel:**

ostiralero zozkatzen diren sarietako bat irabaz dezakezu zure zenbakiarekin.

Txartel bakoitzak **euro 1** balio du. Salmahaian eros daitezke, banku-txartelarekin edo eskudirutan ordainduta.

Baina gogoan izan ez duzula jokatzeko irabazteko, baizik eta Caritasen proiektuei benetako babesa emateko, eta emate horretan beti dagoela itzultzen den zerbait: mundu bidezkoagoa, batuagoa, humanoagoa.

TONBOLAREN ARIMA: PERTSONAK

Urtero, **120 boluntariok baino gehiagok** gauzatzen dute Tonbola. Haien energia, gertutasuna eta konpromisoa **proiektuaren bihotza** dira.

Gazteak, adinekoak, maila guztietakoak, hitzordu solidario honetako protagonista bihurtzen direnak.

GUREKIN BAT EGIN NAHI DUZU?

Beti dago beste irribarre baterako tokia! Galde ezazu informazio-
mostradorean edo idatziezaguzu hona:
gestionpersonas@caritaspamplona.org



INFORMAZIO ERABILGARRIA



EGUNAK

Maiatzaren 31tik
uztailaren 15era

Sarasate pasealekua - Iruña

TXARTELAREN PREZIOA:

Euro 1

**Txartelek 2025eko abuztuaren
14an galduko dute balioa.**



ORDUTEGIA

- Astelehenetik igandera:

Goizez: 10:30 - 13:30

Arratsaldez: 17:30 - 20:30

- Sanferminetan:

Goizez: 10:30 - 14:30

Arratsaldez: 18:00 - 22:30

SARIAK

Ikusi Tonbolan egokitu ahal
zaizun guztia!

Sariak **edozein unetan har
ditzakezu** sariak emateko
mostradorean, **uztailaren 15a
bitartean**, eta uztailaren 18tik
aurrera San Anton kalearen 3an.

Oliba-olio	5.200
Oliontzi	2.600
Oliba-pote	7.800
Kuxin elektriko	200
Bozgorailu txiki, bluetooth motakoak	200
Oragailu, hagaxkak dituztenak	150
Aperitibo bi lagunentzat	13.000
Xurgagailu, robot erakoak	80
Hegaluze-pote	5.200
Entzungailu, bluetooth motakoak	250
Arbel-erretilu aperitiborako	5.200
Barkillo-zorro	5.200
Baskula sukalderako	288

Irabiagailu, edalontzi-formakoak	260
Paseoko bizikleta	90
Katilu txiki aperitiborako	5.200
Poltsa hozkailu	2.600
Poltsa berrerabilgarri	2.600
Poto sukalderako	5.200
Botila, eskulekua dutenak	5.200
Ardo-botila	7.800
Botilatxo urerako	5.200
Kakao-hauts zorro	5.200
Kafe	5.200
Kafe-makina, kapsulak erabiltzen dituztenak	150
Gourmet salda	5.200
"Trukatu beste txartel batekin"	5.832

Gozoki	7.800
Kargagailu anizkun	2.600
Hortzetako eskuila elektriko	400
Chaskis poltsa	5.200
Txokolate-tableta	10.400
Txorizo	5.200
Dozena txurro	2.600
Auto	2
Bazkari bi lagunentzat	150
Ontzi hermetiko	5.200
Kuia-krema	2.600
Eskuetarako baltsamo	2.600
Koaderno	2.600
Ontzi magiko	5.200
Mantal	2.600
Entsalada-ontzi	5.200
Sarrera Senda Vivarako, bi lagunentzat	300
Bisita Iruñeko Katedralaren Museora, bi lagunentzat	650
Sarrera zinemarako, bi lagunentzat	7.800
Zainzuri-lata	5.200
Egonaldi hondartzan	20

Zukugailu	300
Galleta-zorro	5.200
Gel bainurako	2.600
Izozki, bi lagunentzat	7.800
Ur-irakinontzi	150
Onddo frijitu	2.600
Urdaiazpiko	1.300
Joko badmintonerako	5.200
Sorta gozogintzarako	5.200
Lacasitos zorro	2.600
Lata txorizo sagardotan	5.200
Esneontzi txiki eta zuri	1.300
Egoskari-lata	7.800
Liburu	300
Lozio gorputzerako	1.300
Eskuzorro laberako	2.600
Sofarako	2.600
Mahai-zapi	226
Mahai-zapi banakako	5.200
Marko argazkietarako	2.600
Marmelada-pote	5.200
Motxila tolesgarri	2.600
Molde silikonazko gozogintzarako	2.600
Morenito kaxa	7.800

Muztio	5.200
Nezeser	5.200
Pack bainuetxerako, bi lagunentzat	150
Pala hondartzarako	5.200
Zapi gorri brodatu	5.200
Aterki	5.100
Pasta-kaxa, artisau eran eginak	7.800
Pate-poto	7.800
Ozpinetako pepino poto	5.200
Pikillo piper poto	5.200
Potxa poto	5.200
Bota-eramateko	2.600
Ezpain-babes	2.600
Birringailu	2.600
Tuper	5.200
Sukalde-erloju	2.600
Sandwich-ontzi	300
Ile-lehorgailu bidaiatzeko	500
Smartwatch	250
Taula aperitiborako	2.600
Aulki tolesgarri	1.300
Kazola arrozerako	1.300
Katilu gosarirako	7.800

Telebista 50 hazbeteko	100
Termo	2.600
Guraize	5.200
Tomate frijitu pote	7.800
Txigorgailu	300
Pastel: Trenza del reyno	5.200
Trolley kabinarako	100
Baxera	1.300
Edalontzi termiko	1.300
Edalontzi	5.200
Kandela perfumatu	5.200
Barazki Nafarroako	7.800
Ozpin	5.200
Bisita Otazu upategira, bi lagunentzat	100

ZOZKETAK

Erromara bidaiatzeko 13 zozketa, bi lagunentzat.

Bizikleta elektrikoen 13 zozketa.

Zozketak jendaurrean egiten dira, Tonbolan, ostiraleroko, 13:00etan.

Gero, irabazle izan diren zenbakiak hemen kaleratzen dira:

Tonbolan bertan

www.caritaspamplona.org
webgunean

Caritasen sare sozialetan

LEGEZKO OINARRIAK

IRUÑA-TUTERAKO CARITASEN TONBOLAREN LEGE-OINARRIAK

1. ANTOLATZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA

Oinarri hauetan, *IRUÑA-TUTERAKO CÁRITAS DIOCESANA* erakundeak (aurrerantzean, *ANTOLATZAILEAK*; IFK: R3103164D; helbidea: San Anton kalea 8, BEHEA, 31001 – IRUÑA (Nafarroa).

Antolatutako tonbola handienaren modalitateko jokoari ezarri beharreko baldintzak eta jarraibideak jasotzen dira (sarien zenbateko osoa 1.800 euro edo gehiago da).

2. JOKOAREN ZEHAZTAPENAK

Tonbola honetan hainbat objektu zozketatuko dira. Objektu horiek jendaurrean jarriko dira eta txartelak prezio jakin batean eskuratu dituzten erosleen artean banatuko dira, honako modalitate hauetan, eta txarteletan, hala badagokio, lortuko den saria adieraziko da:

- Ekitaldian eman daitezkeen objektuak
- ("reúna") puntuen baturarekin eman daitezkeenak eta
- aldizkako zozketen bidez eman daitezkeenak.

Txartelak gaitutako salmenta-postuetan erosi ahal izango dira, tonbola jarriko den esparru berean, eta ANTOLATZAILEAREN boluntarioek salduko dituzte.

Bi milioi eta seiehun mila (2.600.000) txartel jarriko dira saltzen.

Ez dago mugarik pertsona bakar batek eskura ditzakeen txartelen kopuruan, eta horiek eskudirutan nahiz txartelarekin ordaindu ahal izango dira, salmentaz arduratzen diren boluntarioek datafonoak eramango baitituzte.

3. NON ETA NOIZ EGINGO DEN

Tonbola Iruñeko Sarasate pasealekuan jarriko da 2025eko maiatzaren 31tik uztailaren 15era bitartean, biak barne.

Tonbolarekin batera egiten diren zozketak denbora-tarte horretako ostiral guztietan egingo dira, baldin eta txanda bakoitzean 100.000 txartel saltzen badira.

4. PARTE HARTZEKO MODUA

Tonbola honetan edozein pertsonak parte hartu ahal izango du, baldin eta Oinarri hauetan adierazitako debekuen arteko batean erori ez bada, eta TXARTEL BAKOITZEKO EURO BAT (1) ordaindu badu.

Tonbola honetan, adinez nagusi direnek eta jarduteko gaitasun osoa dutenek baino ez dute parte hartuko. 18 URTEtik beherakoek ezingo dute txartelik erosi.

Era berean, tonbolan ez dute parte hartuko talde ANTOLATZAILEko langileek. Arau hori ez betetzeak lortutako saria galtzea ekarriko du.

Ez dira onartuko faltsututako, hondatutako, hautsitako edo irakurri ezin diren txartel sarituak.

Jendeari txartelak saltzeko eta sariak banatzeko ordutegia 10:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era izango da astelehenetik igandera, biak barne, aurreko atalean aipatutako denbora-tarte osoan, San Ferminetan izan ezik, ordutegia, orduan, 10:30etik 14:30era eta 18:00etatik 22:30era izango baita.

5. SARIAK

Hiru sari mota izango dira:

- Berehala ematekoak diren sariak tonbolan horretarako prestatutako salmahaian egongo dira.
- "REÚNA" adierazpena duten eta sarituak izan diren 5, 10, 20 txartelen ordaineko sariak tonbolan horretarako jarritako salmahaian trukatu ahal izango dira.

- Zozketetan irabazleei esleitutako sariak.

Oinarri hauen eranskinean zerrendatzen dira tonbolaren eta zozketen sariak, baita horiek merkatuan duten prezioa edo balioa, eta horiek zer gordailutan edo zer tokitan dauden erakusgai ere.

Tonbolaren sariak irabazle ateratzen diren txartelentzako ekitaldian emango dira. Sariak ez dute ez zamarik ez kargarik izango, eta dagozkion zerga-betebeharrak ANTOLATZAILEAK eta sarituak beteko dituzte, hala badagokio. Sustapeneko irabazleek sariak lor ditzaten, une bakoitzean indarrean dagoen zerga-araudian xedatutakoa bete beharko dute.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen zerga-araudiaren arabera, ondasunak edo zerbitzuak saltzeari edo sustatzeari lotutako joko, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioetan parte hartzeagatik ematen diren sariak PFEZaren atxikipenari lotuta daude, sariak emateko unean indarrean dagoen zerga-legediari jarraikiz, betiere sariaren balioa 2.500 eurotik gorakoa bada.

Ezaugarri jakin batzuk direla-eta (adibidez, telebistak) tonbolaren instalazioetan trukatu ezin diren sariak hornitzailearen establezimenduan bertan eskuratuko dira, irekitzeko ordutegien, kokapenaren eta gainerako baldintzen arabera. ANTOLATZAILEAREKIN zerikusirik ez duen arrazoiren batengatik, aurreikusitako saria emateko prest ez badago, ANTOLATZAILEAK sari horren ordeztu bereko edo handiagoko beste bat emateko eskubidea izango du.

Tonbolan eta zozketan ateratzen diren sariak, kasuaren arabera, saritutako txartelaren edukitzaileei emango zaizkie.

Irabazleak lortutako sariari uko egiteko eskubidea izango du, baina ezin izango du beste sari batekin trukatu, ez eta eskudirutan ere.

ANTOLATZAILEAK ez du inolako erantzukizunik izango sariarekin edo saria gaizki erabiltzearekin lotutako edozer arrazoiren aurrean.

6. ZOZKETAK EGITEKO MODUA

Parte hartzeko eskubidea esleitu zaien txartel guztiek parte hartu ahal izango dute zozketan, zozketatu beharreko zenbaki eta sari jakin baten bidez.

26 zozketa egingo dira, hau da, zozketa bat saldutako 100.000 txarteleko, txanda bakoitzean 100.000 txartel horiek saldu ondoren. Txanda bakoitzean saldutako 100.000 txarteletatik 60.000 zozketatuko dira eta 0tik 59.999ra arteko zenbakiak izango dituzte. Zozketa egiteko bost bonbo egongo dira, eta bakoitza zenbaki sarituaren bost zifretako bati dagokio. Milako hamarrekoen ontzian 6 bola sartzen dira (0tik 5era), eta gainerakoetan 9 bola (0tik 9ra).

Zozketak tonbolaren instalazioan bertan adierazitako egunetan egingo dira eta publikoak izango dira.

Zozketak tonbolaren arduradunak egingo ditu, eta taldeko beste pertsona baten laguntza izango du beti. Horiek izango dira bolak aterako dituztenak.

Zozketak egiteko datak tonbolaren instalazioan bertan dagoen kartelean eta www.caritaspamplona.org web-orrian iragarriko dira.

Dagokion sariaren irabazlea izateko, oinarri hauetan ezarritako merkaturatze-aldian erositako txartelaren jabe legitimoa izan behar da, eta irabazle atera den zenbakiak eta izendatutako pertsonak ateratako zenbakiak bat egin behar dute.

Zozketetan saritutako zenbakiak tonbolaren instalazioan bertan dagoen kartelean erakutsiko dira, baita web-orrian eta sare sozialetan ere.

7. SARI-EMATEAK ETA EPEAK

Jokoan dauden sari guztiak, hau da, zuzenekoak, “reúna”k pilatuz lortutakoak eta zozketa bidez esleitutakoak berehala jaso ahal izango dira tonbolan horretarako gaitutako mostradorean (5. ataleko laugarren paragrafoan aurreikusitako salbuespenaren kasuan izan ezik), eta jasotzeko azken eguna 2025eko uztailaren 15a izango da. Sariak 18 urtetik gorakoei bakarrik eman ahal izango zaizkie.

Egun horren ondoren, saritutako txartelen bat duten pertsonak 2025eko abuztuaren 14a baino lehen jaso ahal izango dute saria, ANTOLATZAILEAREN *instalazioetara joanda (San Anton kalea 3, BEHEA, 31001 – IRUÑA, Nafarroa) (salbu eta aurreko paragrafoan aipatzen den 5. ataleko laugarren paragrafoan aurreikusitakoaren kasuan izan ezik).*

Goian adierazitako epeak igaro ondoren, ANTOLATZAILEARI egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik saria ematerik izan ez bada, sari hori erreklamatzeko edozein eskubide bertan behera geratuko da.

Sariak emateko epe horiek igaro eta sariak jaso ez badira, sariak eman gabe geratuko dira, ANTOLATZAILEAREN titulartasunpean.

Sariak jasotzeko epemuga alde batera utzita, sari batzuek gehieneko kontsumo-data bat izan dezakete, txartelean bertan adieraziko dena, eta data hori igarotakoan saria jasotzeko eskubidea galduko da.

8. ANTOLATZAILEAREN ERANTZUKIZUNA

ANTOLATZAILEA ez da
hau ez arduratuko:

- Irabazleak sariari ematen dion erabilera.
- Hirugarren enpresek tonbola hau dela-eta eman behar dituzten zerbitzuak.
- Saria baliatzearekin loturik edo horren ondorioz irabazleak edo haren kideak jasan ditzakeen kalte eta galerak.
- ANTOLATZAILEAri egotzi ezin zaizkion arrazoiek eragindako erroreak edo akatsak

ANTOLATZAILEAK ez du erantzukizunik izango irabazleari saria osorik edo zati batean disfrutatzea eragotz diezaioketen ezinbesteko kasuetan, eta adierazitako kasuren bat gertatuz gero, ez du inolako erantzukizunik izango.

9. DATU-BABESA

Datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz, honako hau jakinarazten dizugu:

Tratamenduaren arduraduna: IRUÑEKO ETA TUTERAKO ELIZBARRUTIKO CARITAS (*aurrerantzean, ANTOLATZAILEA*). IFK: R3103164D; helbidea: San Anton kalea 8, BEHEA, 31001 – IRUÑA (Nafarroa).

Tratamendua eta helburua:

Antolatzaileak zera jakinarazten die irabazleei, zozketan saritu gisa borondatez ematen dituzten datu pertsonalak antolatzaileak berak tratatuko dituela, saria kudeatu eta eman ahal izateko.

- Lege-oinarria: Interesdunarekin lotzen den kontratua betearaztea, DBEOren 6.1.b) artikulua (lege-oinarri hauek).
- Gordetzeko epea: Arestian adierazitako helburua lortzeko behar-beharrezkoa den epean eta Arduraduna indarreko araudiaren arabera tratamendurako legitimatuta dagoen bitartean.

Hartzaileak: Jakinaren gainean izan zaitezen, zure datuak, oro har, ez zaizkie hirugarrenei lagako, legeak hala egitea ezarri ezean, edo zerorrek berariazko baimena eman ez baduzu. Nolanahi ere, jakinarazpen eta/edo transferentzia batzuk sustapenari aplika dakioken araudiak ezar ditzake, hala nola zerga-araudiak (datuak zerga-ogasunei jakinaraztea).

Era berean, sariak behar bezala kudeatzeko eta banatzeko, beharrezkoa izan daiteke irabazleen zenbait datu hirugarrenei jakinaraztea edo transmititzea. Jarraian, hirugarrenei datuak jakinaraztea beharrezkoa izan dezaketen xedeak adierazten ditugu:

- Arduraduna ez den beste erakunde baten ardurapeko sariak eskuratzea: kasu horretan, irabazlearen datuak saria emateaz arduratzen den enpresari jakinaraziko zaizkio, hark irabazlearekin saria eskuratzea koordinatu ahal izan dezan.
- Irabazleei sariak emateaz arduratzen den enpresa garraiolaria.

Eskubideak eta horiek gauzatzea:

Tratamendurako biltzen diren izaera pertsonaleko datuei dagokienez, datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta eramateko eskubideak gauzatu ditzakezu. Era berean, zera jakinarazten dizugu, inguruabar jakin batzuetan, zure datuen tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko eskatzeko eskubidea izango duzula.

Kasu horretan, erantzuleak tratamendua bertan behera utziko du eta datu horiek soilik gordeko ditu, baldin eta hala ezartzen dion arau-betebeharren bat badago edo gerta daitezkeen ekintzak preskribatu arte.

10. ETEKINEN XEDEA

Tonbolaren ondorioz lortutako irabaziak *IRUÑEko eta TUTERAko ELIZBARRUTIKO CARITASEN* jarduera propioak finantzatzeko erabiliko dira.

11. HEDAPENA

Tonbolaren antolaketa hainbat komunikabideren bidez iragarriko da, tonbola egin aurretik.

12. OINARRIAK ONARTZEA

Tonbola honetan parte hartzeak Oinarri hauek osorik onartzen direla esan nahi du. Oinarri hauek María José Bustillo Fernández Iruñeko Elkargoko notarioaren aurrean gordailatu dira, eta lehiaketa eta zozketen oinarrien notario-artxiboan (ABACO), www.notariado.org webgunean eta ANTOLATZAILEAREN webgunean kontsultatu ahal izango dituzte parte-hartzaileek.

Salbuespen gisa, eta behar bezala justifikatutako arrazoiengatik, ANTOLATZAILEAK oinarri hauek edozein unetan aldatzeko eskubidea izango du, bai eta ezarri beharreko beste edozein baldintza orokor edo berezi, erabilera erregelamendu, jarraibide edo abisu aldatzeko ere.

Oinarri hauen interpretazioan zalantzarik edo desadostasunik egonez gero, ANTOLATZAILEaren irizpidea izango da nagusi.

Erreklamazioak aurkezteko epea sarien banaketa amaitu eta 5 egun naturalera amaituko da, hau da, 2025eko abuztuaren 20an.

13. LEGERIA ETA FORUA

Ekintza honi ezarri beharreko legeria Espainiakoa izango da. Aldiz, dokumentu hau interpretatu eta betearaztetik erator daitezkeen eztabaida guztietarako, eta foruaren arloan alderdien xedapena mugatzen duen araurik ez badago, dokumentu hau Iruñeko (Nafarroa) Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko da, eta espresuki uko egingo dio legokiekeen beste edozein foruri. Aipatutako kasuan, arauren batek forua ezartzea debekatzen badu, ezarri gabekotzat joko da, eta lege-oinarrien epigrafe hau ez da aplikatuko.

Notarioaren aurrean gordailututako oinarriak:
María Jesús Bustillo notariotza.

BIZITZAK ALDATZEN DITUEN TONBOLA



Lagundu

Iruña: San Antón, 8 / 948 225 909

Tutera: Alberto Peláirea, 2 / 948 826 856

www.caritaspamplona.org

